

PRENTSA OHARRA

Smart Factoryetarako trantsizioa bizkortzeko gune teknologiko berri bat Euskadin

- *SCHUNK enpresa alemaniarrek eta Tekniker zentro teknologikoak CoLab lankidetzaren inauguratu dute Eibarren*
- *Teknikerren instalazioetan kokatuta, zortzi lan-banku robotizatu eskainiko dizkie enpresei, beren prozesuetan automatizazio-soluzioen aplikazioa baliozkotzeko*

[Eibarren, 2024ko abenduaren 4an] – Fabrikazio-ingurune adimendunetarako trantsizioak bultzada berri bat hartuko du Euskadin, atzo Eibarren (Gipuzkoa) inauguratu zen espazio teknologiko berriari esker, **SCHUNK** enpresa alemaniarrek (heltze eta euste sistemetan espezializatua) eta **Tekniker** zentro teknologikoak (Basque Research and Technology Alliance [BRTA] aliantzako kidea) sinatutako lankidetzaren esparruan.

Bi eragileek "CoLab - Aplikazio robotikoen zentroa" aurkeztu zieten lurraldeko erakunde eta enpresei, automatizazio industrialaren esparruan soluzio integral eta eskalagarri berriak probatzera zuzendutako lankidetzaren bat, zentro teknologikoaren egoitzan egongo dena.

Teknikerreko robotika-laboregian dago CoLab, eta marka nagusietako zortzi robotek eta SCHUNKek lagatuko hainbat elementu osatutako eremu bat eskainiko dio enpresa-sareari, probak egiteko (erreminta automatizatuen aldaketak, pieza metalikoen akaberak edo piezen hautaketa eta bilketa).

"Enpresek beren probak egin, eskura dituzten ekipamenduekin balidatu eta prozesu industrialen automatizazioa nola gauzatu erabakitzeko espazio bat eskaintzen dugu", nabarmendu du Luis Uriarte Teknikerreko zuzendari nagusiak.

Akordioaren barruan, instalazioez gain, Teknikerrek ezagutza eta esperientzia zabala eskainiko du robot-teknologiak industria-inguruneetan integratzen; SCHUNKek, berriz,

etengabeko presentzia izango du giza baliabideekin eta baliabide materialekin, hala nola, amarratze-sistemekin, erreminta-aldagailuekin, indar-sentsoreekin edo picking soluzioekin.

Inaugurazio-ekitaldian honako hauek izan ziren: Marc Murtra, SCHUNKeko Gripping and Automation Technology zuzendaria; CoLab martxan jartzeko unitateak laga dituzten fabrikatzaile robotikoak; eta Walther von Plettenberg, Alemaniako Merkataritza Ganberako Espainiarako zuzendari kudeatzailea; Jon Gurrutxaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako zuzendari nagusia; Cristina Oyón, SPRIko (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila) Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasuneko zuzendaria; eta Michael John Voss, Alemaniako ohorezko kontsula.

SCHUNKi buruz

1945ean sortua, SCHUNK nazioarteko enpresa teknologiko bat da, heltze, euste eta automatizazio teknologien fabrikazioan espezializatua. 3700 langile baino gehiago ditu eta 50 herrialdetan baino gehiagotan du presentzia.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundea eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago izateko:

GUK ▶ Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067